



Hernaniko BagaGiltza herritar dinamika da, Hernaniko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari za zabala. Martxoaren 19ko herri-galdeketa antolatzea du xede eta horren bidez erabakitze ko eskubidea aldarrikatze tik egikaritzera pasa.

Herriko herritar ooren bilgune izan nahi du BagaGiltzak, erabakitze ko eskubidea, emaitzaren gainetik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokia baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, gure herriko biztanle on iritziaren babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkari za duen heinean, begi onez ikusten du martxoaren 19ko herri-galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitze ko eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako.

Guztion parte-hartzea ezinbesteko baldintza da erabakitze-ari keta bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzarako gako.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotze ko gonbita luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu Euskal Herria errepublika burujabea eta independentea izatea?

¿Quieres que Euskal Herria sea una república soberana e independiente?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!

Hernanin, 2017ko otsailaren 28an